

THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko eztabaida prozesua: 4. lan dokumentua

KULTURA POLITIKO BERRIAREN ETA BERDINTASUNAREN LAN-DEFINIZIOAK

(2020ko urriaren 14a)

Etorkizuna Eraikiz Think Tank-aren baitan kultura politiko berri baten inguruko eztabaida garatzen ari den taldeak demokrazia liberalen krisiaren eta horri aurre egiteko kultura politiko berri baten behararen inguruko hausnarketa batekin eman zion hasiera prozesu honi (ikus 1. lan dokumentua). Horretarako, Gipuzkoak dituen erronka nagusiak landu ziren hurrena (2. lan dokumentua) eta horiei erantzuteko eztabaidarako gai batzuk lehenetsi (3. lan dokumentua).

Taldeak mahai gainean jarri zuen lehen erronka kultura politikoa eta berdintasuna zer diren definizio propioak edukitzearena izan zen. Erronka hori 2020ko irailaren 16an landu zen, Daniel Innerarity-k horretarako marko kontzeptual bat partekatu ondoren. Taldeak ondorengo definizioen oinarriak jarri zituen:

KULTURA POLITIKO BERRIA

Kultura politiko berria demokraziaren garapenean ordezkapenetik parte hartzera eta handik kolaboraziora bultzatzen gaituen **fase berri bat da** eta pertsona burujabeak eta gizarte zibil bizia ditu oinarri.

Kultura politiko berriari dagokion **istema** gobernantza kolaboratiboa da eta sistema honek hiru ardatz ditu: balio etikoak kohesio sistema moduan, interakzio sistema efektiboak eta ezagutza komunitarioa. Sistema hau **hiru planotan** garatzen da: subjektiboa, pertsonarena eta gizartearena.

Kultura politiko berriaren **helburua** da administrazio eta eragile nagusien arteko harremana eraldatzea, agenda berri bati aurre egiteko. Horretarako, **lan ildoak** lau dira: (1) arazoak ulertzeko modua aldatu, ikuspegi sistemiko batetik konplexutasuna barneratuz; (2) esparru kolaboratiboak antolatu; (3) ziurgabetasunari erantzun prototipazio eta ko-sortzearen bidez eta (4) administrazioa barnetik eraldatu eta ireki gizartearen arazoak ulertu eta erantzunak artikulatzeko, horretarako teknikarien rola egokituz.

BERDINTASUNA

Berdintasuna norbanakoentzat eskubide eta aukera berdinak bilatu eta desberdinkeria konpentsatzeko **prozesua**, eta aldi berean prozesu honen **emaitza** da. Hau da, alde batetik abiapuntuko **eskubide** eta **aukeretan**, eta baita **emaitzetan** ere, berdintasuna adierazten du. Bestetik, eta aurrekoak lortzeko, bidean prozesuko baldintza berdintasuna bermatzea eskatzen du.

Berdintasuna aztertzerako garaian egiturako eta pertzepzioan oinarrituriko **adierazleak** erabiliko ditugu, hau da, berdintasuna ulertzeko objektiboki neurtu ditzakegun adierazleez gain, garrantzitsua izango da pertsonen berdintasunaz duten ikuspegi subjektiboa ezagutzea. Bestalde, berdintasuna **lau ardatzen baitan** bilatuko dugu: hizkuntza, generoa, ekonomia eta ongizatea.

Garrantzitsua da definizio hauek lan metodologiaren baitan betetzen duten tokia ondo ulertzea. Izan ere, Think Tank-ak teoria eta praktikaren arteko tentsioa erabili nahi du eraldaketa bultzatzeko. Honek bi modutako lanketak eskatzen ditu:

- a) *Adituen ekarpenen irakurketa kritikoa*. Landu nahi diren gai eta erronken inguruan adituak direnen teoria eta marko kontzeptualak eztabaidatu eta modu kritikoan txertatuko dira esperimentazio prozesuetan. Hau da, teoria eta marko horiek, partaideen esperimentazioan txertatuko dira soilik lagungarri direnean.
- b) *Partaideen kontzeptu eta markoen irakurketa kritikoa*. Partaideek dituzten kontzeptuen inguruko aurreiritzi eta interpretazioak mahai gainean jarriko dira, adituen eta gainontzeko partaideen ekarpenen bidez modu kritikoan aztertu eta ikasketaren ondorioz eraldatzen joateko.

Kontuan izanik orain artean kultura politikoaz adituek egin ahal izan duten ekarpena oso mugatua izan dela (ikus 1. lan dokumentua eta Daniel Innerarityren aurkezpena), dokumentu honetan jasotako lan definizioak batez ere partaideen interpretazioen argazkia dira. Aurrera begira, definizio hauek eraldatzen joan beharko lukete bi modutako lanketak eginez:

- a) Adituen testu eta ekarpenak oinarri hartuz, taldearen definizioen berrikuspen kritikoa.
- b) Bakoitzak bere esperimentazio prozesuetan ikasten duenetik, adituen ekarpenen eta taldearen definizioen berrikuspen kritikoa.

Lanketa hau batzuetan kultura politiko berriaren kontzeptua bera oinarritzat hartuta egingo da eta beste batzuetan kultura politiko berriaren baitan definitu diren ardatz zehatzagoak eztabaidatuz. Urriaren 14ko saioan bigarren bide hau hartuko da, kultura politiko berriaren eraikuntza prozesuan konplexutasuna nola aztertu eta ikuspegi sistemikoa nola txertatu eztabaidatuz Angela Hanson-en eskutik.